



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

PROBAREN KODEA: TE1100513

TE1 - TEKNIKARIAK. LIBURUTEGIA

**LEHEN ARIKETA
BIGARREN PROBA**

*Denbora, gehienez: 50 minutu
Galderak: 50.*

EREDUA:

A

JARRAIBIDEAK

- Ez zabaldu esan arte.
- Jarraitu jarraibide hauek irakurtzen.
- Idatzi NAN zk. eta LETRA, eta bete laukitxoak, irakurketa optikorako.
- Idatzi 1. DEITURA, 2. DEITURA, IZENA eta DATA.
- AZTERKETA atalean, idatzi goiko aldean ageri den azterketa-kodea.
- Markatu, erantzun-orrian, egokitu zaizun EREDUA.
- Gogoan izan:
 - 50 galdera, launa erantzun-aukerarekin.
 - Aukera baliiodun bakar bana. Bat baino gehiago izanez gero, orokorren edo osoena izango da baliioduna, enuntziatuan OKERREKOA aukera dadila eskatu ezean, hiru izango baitira zuzenak halakoetan, eta okerra markatu beharko baita.
 - Probaren iraupena: 50 minutu.
 - Asmatua: puntu bat (1,00)
 - Okerrak, baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez dira penalizatuko.
- Ereduren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Lehenengo 30 minutuak igarotzen direlarik eskatu ahal izango da azterketa jasotzea.
- Esaten dizutenean, bereizi erantzun-orri zuria eta kopia orria. Zuria antolakuntzako langileei eman behar diezu.
- Kopia horia eta jarraibideen orria zure esku geratuko dira.
- Hautaketa-prozesuen webgunetik deskargatu ahal izango duzu proba honen koadernotxoa, erantzunen behin behineko txantiloiarekin batera, epaimahaiak argitaratzea erabakitzen duenean.

Eskerrik asko zure laguntzagatik,

1. Elementu hauetatik, zeinek ezartzen dituzte liburutegien eta dokumentazio-zentroyen arteko diferentziak?:

- a) Dokumentuak biltegiratu eta berreskuratzea, eta horien tratamendua.
- b) Dokumentu mota, tratamendua, biltegiratu eta berreskuratzea, erabiltzaileari emandako informazioa eta erabiltzailearen ekimena.
- c) Dokumentu mota eta erabiltzaileari emandako informazioa.
- d) Bilduma osatzen duten dokumentuen mota.

2. Zein da baieztapen zuzena, bilduma bibliografiko bat definitzeko?:

- a) Liburutegi bateko liburu eta aldizkarien multzoa da.
- b) Liburutegiak erabiltzaileen eskura jartzen dituen liburutegi-materialen multzoa da.
- c) Liburutegiak erabiltzaileei eskaintzen dizkien material bibliografikoen multzoa da.
- d) Gai jakin batekin zerikusia duten liburu eta artikuluen zerrenda da.

3. Liburutegi-ingurune batean, zein esaldik definitzen du ongien hautaketa-prozesua?:

- a) Liburutegi bateko bildumari zein dokumentu gehitu behar zaizkion erabakitzeko prozesua da hautaketa.
- b) Liburutegiak erabiltzaileei liburuak eskaintzeko prozesua da hautaketa.
- c) Liburutegi bateko bilduman zein dokumentu xahutu behar diren definitzeko prozesua da hautaketa.
- d) Liburutegiek zein material mailegatuko dituzten eta zein ez erabakitzeko prozesua da hautaketa.

4. Irizpide hauetatik, zein hartu behar dira kontuan liburutegi bateko baliabide elektronikoak hautatzean?:

- a) Erabiltzaileen intereseko gaiak; lineako sarbiderako ekipo informatikoen eskuragarritasuna.
- b) Erabiltzaileak eskatzen duelarik paperezko kopiak eta digitalak lortzeko aukera.
- c) Aukeratutako baliabideak materialaren berehalako eguneratzea eskaintzea, zaharkituta geratu ahala.
- d) Erabiltzaile-komunitatearen ezagutza informatikoen maila; bilaketa-metodologiaren erraztasuna; materialaren maila intelektuala.

5. Zer esan nahi dute ISBD siglak?:

- a) International Standard Book Description.
- b) International Database Description.
- c) International Standard Bibliographic Description.
- d) International Standard Book Description.

6. Zenbat digituk osatzen dute ISBNa gaur egun?:

- a) 13 digituk.
- b) 10 digituk.
- c) 20 digituk.
- d) 8 digituk.

7. Liburutegi batean inbentarioa egiten delarik, hau detektatzeko aukera dago:

- a) Etiketak ongi egokituta dauden.
- b) Gaizki kokatutako funtsak, galerak eta hondatuak.
- c) Bilduma bibliografikoa kokatzeko libre geratzen den lekua.
- d) Galdu diren obrak.

8. IFLAren arabera, honela sailkatzen dira liburutegiak:

- a) Ikerketa-liburutegi orokorrak, liburutegi espezializatuak, erabiltzaile ororentzako liburutegiak.
- b) Ikerketa-liburutegi orokorrak, liburutegi nazionalak, unibertsitate-liburutegiak.
- c) Liburutegi nazionalak, unibertsitate-liburutegiak, eskola-liburutegiak.
- d) Liburutegi publikoak, eskola-liburutegiak, udal-liburutegiak.

9. Zer da OPAC bat?:

- a) Signatura topografiko bat.
- b) Liburutegi bateko funts guztiak biltzen dituen datu-base bat.
- c) Linean kontsultatzeko katalogo publiko bat.
- d) Gai-sarrerak dituen fitxategi bat.

10. Zein dira dokumentu-analisiaren faseak?:

- a) Euskarriaren gainean egiten den kanpo-analisisa, aurkibidea eta laburpena barne.
- b) Katalogazioa eta sarbide-puntua aukeratzea.
- c) Kanpo-analisisa (euskarria) eta barne-analisisa (edukia).
- d) Indexazioa, katalogazioa, laburpena.

11. Zenbat arlo aztertu behar dira ISBDetan oinarritutako katalogazio batean?:

- a) 4 arlo.
- b) 8 arlo.
- c) 12 arlo.
- d) 7 arlo.

12. Zer dira deskriptoreak?:

- a) Termino kontrolatuak, normalizatuak, gerora bila litekeen edukia adierazteko erabiliak, gai jakin bat tratatzen duen dokumentua berreskuratzeko.
- b) Izaera askeko terminoak, dokumentuak deskribatzeko balio dutenak.
- c) Termino normalizatuak, dokumentuen egoera fisikoki deskribatzeko balio dutenak.
- d) Termino kontrolatuak eta normalizatuak, dokumentazio-zentro bateko edukiak eta gai espezifikoak deskribatzeko balio dutenak.

13. Zer da liburutegien arteko mailegua?:

- a) Liburutegien arteko liburu-mailegua, deskatalogatutako obren kopiak lortzeko.
- b) Liburutegien arteko liburu-maileguaren modalitate bat, erabiltzaileei funtsak eskuratzeko aukera ematea helburu duena.
- c) Nazioartean, hainbat herrialdetako liburutegien artean egiten den liburu-mailegua.
- d) Liburutegien arteko aldizkako argitalpenen mailegua, zenbaki atzeratuen kopiak eskuratzeko baliatzen dena.

14. Zer da KOHA?:

- a) Informazio-trukerako identifikazio-protokolo bat.
- b) Termino normalizatuen hizkuntza dokumental bat.
- c) Liburutegi-kudeaketarako sistema integratu bat.
- d) Deskribapen bibliografikorako estandar bat.

15. Zer da Montehermoso kulturuneko mediatekako erakusketen dokumentazioaren arloa?:

- a) Kulturunean egindako erakusketen katalogoak.
- b) Interneten nabigatzeko terminal informatikoak dituen espazioa.
- c) Kulturunean egiten ari diren erakusketak eta kultur jarduerak osatzen dituen dokumentu-sorta.
- d) Multimedia-materialen katalogoa.

16. Liburutegi-kudeaketarako sistema integratu batean, zer da zirkulazio-modulua?:

- a) Erabiltzaileen afluentzia kudeatzeko modulua.
- b) Liburutegiak erabiltzaileei bidaltzen dizkien abisuak kudeatzeko modulua.
- c) Liburutegi-mailegua kudeatzeko modulua.
- d) Jasotzen diren aldizkako argitalpenak kudeatzeko modulua.

17. Zein urtetan ekin zitzaion Montehermoso jauregia eraberritzeari, 'kulturune' bihurtzeko?:

- a) 1984.
- b) 1994.
- c) 2001.
- d) 1990.

18. Liburutegi-kudeaketarako sistema integratu batean, modulu honen parte da liburutegiko langileen baimenen kudeaketa:

- a) Zirkulazioa.
- b) Katalogazioa.
- c) Aldizkako argitalpenen kontrola.
- d) Sistemaren administrazioa.

19. Zertarako balio du ISSNek?:

- a) Liburuxkak eta bestelako inprimaki txikiak identifikatzeko.
- b) Eskuizkribuak identifikatzeko.
- c) Literatura grisa identifikatzeko.
- d) Argitalpen seriatuak identifikatzeko.

20. Zer da WordPress?:

- a) Liburutegi-programa bat.
- b) Edukien kudeatzaile bat.
- c) Argitalpen bat.
- d) Webgune bat.

21. Zein udal-sailen mende dago Montehermoso kulturunea?:

- a) Alkatetza Saila.
- b) Hezkuntza Saila.
- c) Kultura Saila.
- d) Hezkuntza eta Kultura Saila.

22. Zer da ISRC?:

- a) Audio- eta musika-grabazioak modu unibokoan identifikatzen dituen nazioarteko kode bat.
- b) Aldizkako argitalpenak modu unibokoan identifikatzen dituen nazioarteko kode bat.
- c) Testuliburuak modu unibokoan identifikatzen dituen nazioarteko kode bat.
- d) Argitaletxeak modu unibokoan identifikatzen dituen nazioarteko kode bat.

23. Zein da lege-gordailuaren helburu nagusia?:

- a) Liburutegi nazionalen funtsak handitzea.
- b) Obra bat zein urtetan argitaratu den adieraztea.
- c) Herrialde bakoitzeko ondare kulturala eta intelektuala biltzea, herritarren eskura jartzea helburu.
- d) Obra bat zein urtetan eta zein probintzian argitaratu den adieraztea.

24. Liburutegi-kudeaketarako sistema integratu baten modulu nagusiak hauek dira:

- a) Administrazioa, katalogazioa, zirkulazioa, erosketak, argitalpen-kontrola eta OPAC.
- b) Administrazioa, autoritate-kontrola, espazio-kudeaketa eta zirkulazioa.
- c) Administrazioa, katalogazioa, mailegua eta OPAC.
- d) Katalogazioa, zirkulazioa, aldizkako argitalpenen kontrola eta OPAC.

25. Argitalpen hauetatik, zeinek eraman behar dute ISBNa?:

- a) Partiturak.
- b) Audioliburuak.
- c) Film zinematografikoak.
- d) Koloreztatzeko liburuak eta eranskailuak.

26. Hautaketa negatiboari honela ere esaten zaio:

- a) Erauztea.
- b) Suntsitzea.
- c) Garbitzea.
- d) Erostea.

27. Zer da tesaurora?:

- a) Dokumentu-hizkuntza gerora koordinatu bat.
- b) Dokumentu-hizkuntza aurrez koordinatu bat.
- c) Dokumentu-hizkuntza koordinatu bat.
- d) Dokumentu-hizkuntza natural bat.

28. Zein da baieztapenik osatuena, katalogo automatizatu bati buruz ari garelarik?:

- a) Sistemak duen informazio guztia linean kontsultatzeko aukera ematen dio OPACek erabiltzaileari, hura berreskuratzeko balio duen galdera-hizkuntza baten bidez.
- b) Liburutegi bateko maileguren egoerari buruzko informazio guztia linean kontsultatzeko aukera ematen dio OPACek erabiltzaileari.
- c) Liburu baten edukia linean kontsultatzeko aukera ematen dio OPACek erabiltzaileari.
- d) Liburutegiko langileekin elkarreragiteko aukera ematen dio OPACek erabiltzaileari.

29. Erabiltzaileari gagozkiolarik. Zein ezaugarrik definitzen dituzte ongien multimedia-sistemak?:

- a) Irisgarritasuna, ubikuotasuna, gardentasuna.
- b) Komunikazioa, euskarria, globaltasuna.
- c) Interaktibitatea, adarkatzea, gardentasuna, nabigazioa.
- d) Abstrakzioa, informazioa, analisia, digitalizazioa.

30. Zer da dokumentu-analisia?:

- a) Dokumentuaren deskribapena, hura kontsultatu aurretik edukiaren berri izateko baliatzen dena.
- b) Dokumentu baten edukia eta forma irudikatzeko eragiketen multzoa, hura kontsultatu edo eskuratzeko errazteko.
- c) Dokumentuaren formaren deskribapena, zeinek hura bildumaren barruan lokalizatzeko balio baitu.
- d) Dokumentuaren gainean —mailegatu aurretik— egiten diren eragiketen multzoa.

31. Katalogioaz ari garelarik, zertaz ari gara?:

- a) Edozein dokumenturen deskribapena egiteaz, kode normalizatzaile bati jarraituz, halatan non modu zehatzean identifikatzeko aukera emango duen, anbiguotasunik gabe, zehaztasunez eta bizkor berreskuratu ahal izateko.
- b) Liburu baten datuak datu-base batean sartzeaz.
- c) Monografiaren eta aldizkako argitalpenen ezaugarri fisikoak deskribatzeaz.
- d) Material bibliografikoak erosi, deskribatu eta sailkatzeaz.

32. Erantzun hauetatik, zeinek zerrendatzen ditu material bibliografikoen deskribapenean egiten diren prozesu teknikoak?:

- a) Erregistratu eta zigilatu.
- b) Erosi eta katalogatu.
- c) Erregistratu eta signatura jarri.
- d) Erosi eta katalogatu.

33. Kontsulta al daitezke Montehermoso kulturuneko mediatekaren hileko gomendioak linean, bere katalogoaren bitartez, libreki?:

- a) Ez, kontsulta presentziala da.
- b) Ez, saioa hasi beharra dago.
- c) Bai, lineako katalogoaren bitartez, erabiltzaile-txartelarekin.
- d) Bai, “zerrendak” atalaren bitartez.

34. Zein da liburutegi-kudeaketarako sistema integratuaren definizio zuzena?:

- a) Liburutegiaren funtzionamendurako beharrezko diren jardueren kudeaketa informatikorako eta horiek automatizatzeko hardwarea.
- b) Liburu eta aldizkariak katalogatzeko programa bat.
- c) Liburutegiaren funtzionamendurako beharrezko diren jardueren kudeaketa informatikorako eta horiek automatizatzeko softwarea.
- d) Automatizatuta dagoen liburutegiko katalogoaren zatia.

35. Zer da argitalpen seriatu bat?:

- a) Izenburu berarekin segidako ataletan argitaratzen dena, printzipioz denbora-mugarik gabeko jarraipena izateko asmoz.
- b) Aldizkari zientifiko bat.
- c) Izenburua aldatu arren edukien gaiak lotzen dituen segidako ataletan argitaratzen dena.
- d) Aldizkakotasun jakin batekin argitaratzen dena.

36. Zer da web-edukien kudeatzailea?:

- a) Sare sozialetan edukiak argitaratzeko baliatzen den aplikazio informatiko bat.
- b) Web-inguruneetan —hainbat formatutan— edukiak sortu, editatu, kudeatu eta argitaratzeko baliatzen den aplikazio informatiko bat.
- c) Organizazio baten webgunean edukiak argitaratzeaz arduratzen den pertsona.
- d) Organizazio baten webgunea diseinatu eta inplementatzeaz arduratzen den pertsona.

37. Zeinek agindu zuen Montehermoso jauregia eraikitzeko?:

- a. Martín de Salinasek.
- b. Montehermosoko markesak.
- c. Ortuño Ibáñez de Aguirrek.
- d. Gasteizko Gotzaindegiak.

38. Ba al du KOHak txostenak egiteko modulu espezifikorik?:

- a. Ez, baina bai erosketen modulu bat.
- b. Bai, txosten eta estatistiken erreperitorio zabala du.
- c. Bai, baina sistemaz aparte erosten den modulu bat da.
- d. Ez, baina bai argitalpen seriatuen modulu bat.

39. Zein da garbiketaren helburua?:

- a) Bildumaren kalitatea eta irisgarritasuna hobetzea.
- b) Material bikoiztuak erretiratzea.
- c) Material hondatuak erretiratzea.
- d) Material zaharkituak erretiratzea.

40. Hauetatik, zeinek definitzen du ongien 'liburutegi digitala'?:

- a) Eduki guztiak digitalizatuta dituen liburutegia.
- b) Internetera konektatutako liburutegia.
- c) Informazio-sistema bat, bere zerbitzuak —kontsulta, maileguak eta abar— webgunearen bitartez eskaintzen dituen.
- d) Informazio-sistema bat, argitalpen digitalen bilduma bat edo gehiagotara urruneko sarbidea ematen duena.

41. Definizio hauetatik, zein da egokiena 'multimedia' kontzeptuari gagozkiolarik?:

- a) Digitalizazio-prozesu batetik lortutako irudi finkoak edo animatuak, soinuak eta testuak jasotzen dituen euskarria.
- b) Euskarri batean edo sarbide-modu bakar baten arabera era digitalean biltegiatutako irudi finko edo animatu, soinu, testu eta datuen multzokatzea.
- c) Formatu digitaleko hedabideetara sarbidea ematen duen euskarri bat.
- d) Formatu digitaleko irudi, soinu, testu eta datuetarako sarbidea.

42. Nola definituko zenuke liburutegi birtual instituzional bat?:

- a) Erakunde baten menpeko liburutegia, haren argitalpenen bertsio osoetara sarbidea ematen duena.
- b) Erakunde baten menpeko liburutegia, haren argitalpenen erreferentzietara sarbidea ematen duena.
- c) Erakunde baten menpeko liburutegia, haren argitalpenen laburpenetara sarbidea ematen duena.
- d) Hainbat erakundek —beren funtsei batera zabalkundea emateko— sinatutako hitzarmena dela medio sortutako liburutegi birtuala.

43. Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?:

- a) Baliabide elektronikoak ez dira deskribatzen liburutegiaren katalogo orokorrean.
- b) Multimedia-formatuetan espezializatutako liburutegien eta ez besteren parte dira baliabide elektronikoak.
- c) Katalogazio partekatua eta erregistroen kopia errazten ditu katalogoan baliabide elektronikoak sartzeak.
- d) Baliabide elektronikoak ez dira liburutegi publikoen katalogoen parte.

44. Laburpenari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?:

- a) Dokumentu bat katalogatzean edukia deskribatzea da laburpena.
- b) Dokumentuaren edukia modu zehatz eta laburtuan azaltzea da laburpenaren xedea.
- c) Dokumentu bat deskribatzean, nahitaezko fasea da laburpena, lokalizazioa errazteko.
- d) Nahitaezko atala da laburpena, monografia bat ISBD(M)ren arabera katalogatzeko orduan.

45. Bazkide-txartela izanez gero, zenbat liburu mailega daitezke Montehermosoko mediatekan?:

- a) Hiru liburu, 15 egunerako —15 eguneko beste bi aldiz luza daiteke—.
- b) Liburu bat, 15 egunerako —15 eguneko beste bi aldiz luza daiteke—.
- c) Liburu bat, 15 egunerako, aldezturik erreserbatuta.
- d) 2 liburu eta 2 aldizkari.

46. Formaren arabera, honelakoa izan daiteke laburpena:

- a) Monografikoa, laburra, egilearena.
- b) Adierazgarria, informatiboa, kritikoa.
- c) Informatiboa, laburtua, profesionala.
- d) Sintetikoa, laburtua, objektiboa.

47. Zein da liburutegiko zerbitzuak edo prozesuak ebaluatzeko neurketa-tresna?

- a) Sinboloak.
- b) Adierazleak.
- c) Parametroak.
- d) Helburuak.

48. Informazio-berreskurapenean, nola esaten zaie sistemak berreskuratu arren garrantzirik gabekak diren dokumentuei?

- a) Dokumentu-isiltasuna.
- b) Dokumentu-zarata.
- c) Okerreko dokumentuak.
- d) Garrantzirik gabeko dokumentuak.

49. Zein katalogazio mota da liburu baten kapituluak deskribatzen duena?:

- a) Katalogazio analitikoa.
- b) Katalogazio sinplifikatua.
- c) Iturriko katalogazioa.
- d) Katalogazio partekatua.

50. Liburutegi-kudeaketarako zein sistema integratu da kode irekikoa?:

- a) Unicorn.
- b) Millennium.
- c) AbsysNet.
- d) Koha.